

ERANTZUKIZUNEN AITORPENA AISIALDIRAKO BILTOKIA MARTXAN JARTZEA

IRAUNKORRA ALDI BATERAKOA

1. ESKATZAILEAREN DATUAK			
3. edo 4. eranskinean ezartzen den bera, edo lokalaren jabetza			
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATE-IZENA			NANa/IFZ
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA		HERRIA	PK
HELBIDE ELEKTRONIKOA	JAKINARAZPENA: HELBIDEA <input type="checkbox"/> HELBIDE ELEKTRONIKOA <input type="checkbox"/>		TELEFONO ZK.
2. ORDEZKARIAREN DATUAK (AUKERA HAU BALIOGARRIA DA ESKATZAILEA LOKALAREN JABEA BADA)			
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATE-IZENA			NANa/IFZ
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA		HERRIA	PK
HELBIDE ELEKTRONIKOA	JAKINARAZPENA: HELBIDEA <input type="checkbox"/> HELBIDE ELEKTRONIKOA <input type="checkbox"/>		TELEFONO ZK.
3. AURRETIAZKO KONTSULTA			
AURRETIAZKO KONTSULTA AURKEZTU DA LOKAL HONETARAKO <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ			AURKEZTEKO EGUNA:
4. LOKALAREN ETA JARDUERAREN DATUAK			
KOKAPENA:			
EZARPEN BERRIAK <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	DAGOEN JARDUERAREN HANDITZEA <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	DAGOEN JARDUERA ALDATZEA <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	LEGEZTATZEA <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
LOKALAREN AZALERA ERAIKI OSOA (m ²)		EGOTEKO TOKIEN AZALERA ERABILGARRIA (m ²)	
ZER AZALERA ERAIKIAN ARITU BEHAR DEN (m ²)		LOKALERAKO AURREIKUSI DEN KIDE KOPURUA:	
LOKALAREN AURREKO JARDUERA:			
ERABILTZEN HASTEKO AURREIKUSI DEN EGUNA:			
5. OBREI BURUZKO DATUAK			
OBRARIK EGIN DA <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ (Baietz bada, segi betetzen 5. ataleko hurrengo laukiak)		OBRAK HASTEKO EGUNA	OBRAK BUKATZEKO EGUNA
LIZENTZIARIK BADU? <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	ESPED. ZK.:		TOKIKO GOBERNU BATZARRA DATA HONETAKOA:
ERANTZUKIZUNEN AITORPENIK BADU? <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ		AURKEZPEN EGUNA:	
6. ZIURTAGIRI TEKNIKOA SINATZEN DUEN TEKNIKARIAREN DATUAK			
IZEN-DEITURAK:			
PROFESIONALEN ELKARGOA:			
7. AURKEZTEN DEN DOKUMENTAZIOA (Markatu "x" bidez egoki diren laukiak)			
NORTASUNARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:			
<input type="checkbox"/>	Eskaera aurkezten duen pertsonaren edo ordezkututako pertsonaren NANaren fotokopia, kasua bada.		
<input type="checkbox"/>	Ordezkaritza frogatzeko agiria, 3. edo 4. eranskinaren arabera, kasua zein den.		
<input type="checkbox"/>	Lokalaren jabearen datuak eta aisialdiko biltokiko kideen zerrenda, 5. eranskinaren arabera.		
<input type="checkbox"/>	Pertsona juridikoa - ordezkaritza frogatzen duen agiria, kasua bada.		

JARDUERA OROKORRAREN BERARIAZKO AGIRIAK:	
<input type="checkbox"/>	Tributuen autolikidazioa, behar bezala betea eta kasu guztietarako ordainketa frogagiria izanik.
<input type="checkbox"/>	Erabileraren zilegitasunaren ziurtagiria: alokairu kontratua, erabilera lagapena edo lokalaren jabetzaren eskritura
<input type="checkbox"/>	Lokala babesteko suteen aurkako eta erantzukizun zibileko aseguru-polizaren egiaztapena; gutxienez ere 250.000 euroko estaldura izan beharko du.
<input type="checkbox"/>	Lokalaren edukiaren inbentarioa, 9. eranskinaren arabera
<input type="checkbox"/>	Fatxada osoaren/osoen eta sarbideen argazkiak (pertsianak, burdin sareak etab.).
LOKAL IRAUNKORRETARAKO DOKUMENTAZIO BERARIAZKOA:	
<input type="checkbox"/>	Lokalaren plano eskalan, teknikari eskudun batek sinatua, non agertuko baitira azalera, banaketa, garaiera libreka eta suteei aurrea hartzeko neurriak, baita lokalaren beste instalazio batzuk ere (aireztapena, iturgintza, elektrizitatea etab.).
<input type="checkbox"/>	Teknikari eskudun batek izenpetutako ziurtagiria, 6. edo 7. eranskinaren arabera, kasua zein den.
ALDI BATERAKO LOKALETARAKO DOKUMENTAZIO BERARIAZKOA:	
<input type="checkbox"/>	Lokalaren jabetzaren zinpeko aitortpena, 8. eranskinaren arabera.
BESTELAKO AGIRIAK (ZEHAZTU):	
<input type="checkbox"/>	Bestelako agiriak (zehaztu):

8. ERANTZUKIZUNEN AITORPENAREN ONDORIOAK ETA ERAGINKORTASUNA

- Erantzukizuneko aitortpena, aurretiazko komunikazioa eta kasu bakoitzerako erantzen den dokumentazioa Burlatako Udaletxean aurkezten ahalko dira, baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein erregistro eta bulegoetan ere.
- Erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezteak ez dakar berez establezimendua eta/edo egin beharreko obrak eta/edo jardueraren hasiera bat datozen aplikatzeko den araudiarekin, eta ez du mugatzen Burlatako Udalarri aplikatzeko den araudi sektorialak egiaztatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko eta, orokorrean, kontrolatzeko ematen dizkion ahalmenen erabilera.
- Erantzukizuneko aitortpenak gaitasuna emanen dio titularrari jarduera egiteko administrazioaren esku uzten denetik tramitazioaren lege nahitaezkoa den dokumentazio osoa, galarazi gabe udal administrazioak egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatzeko esleituta dituen ahalmenak.
- Erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa behar izanik, halakorik aurkeztu gabe egiten badira jarduketak, edo jarduerak gauzatzen edo garatzen badira kautelazko etetea edo behin betikoa deklaratu arren, ondorio guztietarako ulertuko da baimen edo lizentziarik gabeko jarduketak direla, eta lizentziarik gabeko jarduera sailkatuen, obren eta erabileren lege-babes eta zehapen araubide bera aplikatuko zaie, kasu bakoitzean egoki dena.
- Administrazio eskudunari egindako erantzukizuneko aitortpenari erantzen zaion edozein datu, adierazpen edo agiri, funtsean, ez-zuzena edo faltsua bada, edo zerbait falta bada, edo erantzukizuneko aitortpena aurkezten ez bada, ez da segitzen ahalko ukitutako eskubide edo jarduerarekin, gertaera horien berri jakiten den unetik beretik, deusetan galarazi gabe legokiokeen erantzukizun penal, zibil eta administratiboa.

Udalak ebazpena emanen du aipatu inguruabarrak gertatu direla deklaratzeko eta erabakitzen ahalko du interesduna behartuta dagoela egoera juridikoa jarduera, zerbitzua edo obra abiatu, garatu edo gauzatu aitzineko unera lehengoratzera, eta orobat erabaki xede berarekin bertze erantzukizuneko aitortpen bat aurkezteko ezintasuna, ezarritako epean, aplikatzekoak diren arauetan ezarri bezala.
- Jarduera edo zerbitzu beraren inguruan lokal berean hainbat jarduketa egin behar badira, bidezko diren erantzukizuneko aitortpenak eta/edo aurretiazko komunikazioak batera tramitatuko dira.
- Burlatako Udaleko zerbitzu teknikoek ezartzen badute ezen erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko komunikazioaren bidez hasitako espediente bat tramitatu beharko litzatekeela lizentziaren edo aurretiazko baimen baten menpeko prozeduraren bidez, aipatutako espediente prozedura egokira birbideratuko da, alkatetzaren ebazpenaren bidez, beharrezkoa izan gabe interesdunak berriz ere eskaera egitea, eta ebazpen hartan deklaratu da ezin dela onartu erantzukizuneko aitortpen edo aurretiazko komunikazio hori, eta adieraziko da ezin dela ukitutako eskubide edo jarduera gozatzen hasi behar den aginduzko lizentzia lortu gabe.
- Inola ere ez da ulertuko erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko komunikazioaren bidez hartzen direla legeriaren kontrako edo hirigintzako planeamenduaren kontrako ahalik, eta legeriaren edo hirigintzako planeamenduaren kontrako erantzukizuneko aitortpenak eta aurretiazko komunikazioak erabat deusezak izan direla, baldin eraginkor izateko funtsezko beharkizunak betetzen ez baditu.
- Inola ere ez da ulertuko erantzukizuneko aitortpenaren menpe daudela aldamiok jartzea, edozein modutan eremu publikoa okupatzea, edo aldi baterako lan batzuk altueran egitea, edo garabi-ibilgailuak erabiltzea. Erantzukizuneko aitortpena behar duen edozein obrak bide publikoa okupatzea independenteki tramitatuko da, egoki den lizentziaren edo baimenaren bidez.
- Jardueren eta establezimenduen ardura duten pertsonak beharturik daude horiek behar bezalako baldintzetan gauzatu eta mantentzera, segurtasunari, osasungarritasunari, irisgarritasunari eta ingurumeneko kalitateari dagokienez, espazio publikoetan izan litekeen eragina murriztuz eta aipatutako baldintzak betetzeko behar diren teknikari hoberenak erabiliz, horiek eskura badira.
- Erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko komunikazioaren bidez egiten den jarduera edo obraren ardura dutenek betebeharrak berariazkoa dute jarduera edo obrako establezimenduan deklaratuak elementu eta beharkizunen frogagiriak gordetzeko, eta, behar denean, Udalaren esku jartzeko, baldin egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketetarako eskatzen bada.

12. Arau-hausterik bada, arau-hausteen erantzuleak izanen dira, inguruabarrak kontuan harturik, haien portaerarekin arau-haustea egiten dituztenak, bereziki eta kasuen arabera: jardueren titularrak, jardueraren ustiapen tekniko eta ekonomikoaren arduradunak, eta dokumentazio tekniko sinatu duten teknikariak; hori dena, honako honetan ezarritakoarekin bat: "Jarduera sailkatuak, lanak eta jarduerak abian jarri aurretik erantzukizuneko aitortpena eta aurreiazko komunikazioa egiteko prozedurak arautzen dituen udal ordenantza"
13. Erantzukizuneko aitortpenaren edo aurreiazko komunikazioaren menpe dauden jarduerak ikuskatzeko ofizialki izendatutako langileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira, berezko dituen eginkizunak betetzeko, ikuskapenatarako ezarri den bezala hirigintzako eta/edo ingurumeneko legerian.
14. Jarduera abiarazteko erantzukizuneko aitortpena aurkezturik, jarduera ez bada hasten edo gelditzen bada 2 urtetik gora, beharrezkoa izanen da jarduera hasi edo hari segida eman nahi dion pertsona interesdunak erantzukizuneko aitortpen berri bat aurkeztea.
15. Burlatako Udalean indarrean diren ordenantza fiskalek arautuko dituzte erantzukizuneko aitortpena edo aurreiazko komunikazioa aurkezteak ekartzen dituen tributua.

9. ERANTZUKIZUNeko AITORPENA

ERANTZUKIZUNA NIREA IZANIK, SINATZEN DUDAN HONEK HONAKO HAU DEKLARATZEN DUT:

1. Aitortpen honetan alegatu bezala, ordezkarari ahalordedun naizela (markatu egoki dena):
 - Ahalordedunaren edo pertsona juridikoaren ordezkaritzaren kasuan: Data hau duen eskritura publikoaren bidez:
 - Pertsona fisikoaren ordezkaritzaren kasuan: Ordezkaritza frogatzen duen agiriaren bidez. Ordezkararen eta ordezkatuaren artean sinatu zen data honetan:
 - Beste kasu batzuetan, zehaztu egoki dena:
2. Martxan jartzeko erantzukizuneko aitortpenaren xede den aisialdiko biltokiaren jarduera:
 - * EZ dute inpakturik ondare historiko-artistikoan
 - * EZ dakar berarekin jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa eta/edo okupazioa.
 - * EZ dago hirigintzako plangintzan aurreikusitako antolamenduarekin bat EZ datozen eraikinetan, eta, zehazki, EZ dago antolamenduz kanpo deklaraturako eraikinetan.
 - * EZ da erabilera debekatua, aplikatzekoa den hirigintzako araudiaren arabera
3. Aipatutako jardueran aritzeko indarra duen araudiak ezarritako baldintzak betetzen ditu, eta badu hori frogatzen duen dokumentazioa, eta administrazio honen esku uzten dut egiazta dezan, eta konpromisoa hartzen dut dokumentazio hori behar den denboraz administrazio honen esku uztera, aitortpenerako edo nire eskubidea erabiltzeko.
4. Hitza ematen dut horiek guztiak betetzen segituko dudala jarduerak indarra duen bitartean, eta lokalaren eta jardueraren ikuskapena erraztuko diedala udal zerbitzuei, eta Udalak akatsik adierazten badiit, horiek zuzenduko ditudala ematen didaten epean.
5. Hitza ematen dut Udalarari emanen didala establezimenduaren baldintzetan egiten den edozein aldaketaren berri ere, adierazpen honen inguruabarrei eragiten badie, eta behar diren lizentziak eskuratuko ditudala eta/edo aurreiazko komunikazioak eta erantzukizuneko aitortpenak aurkeztuko ditudala, hala behar badu.
6. OBRARIK EGIN BEHAR BADA, beharrezkoa izanen da obren erantzukizuneko aitortpena aurkeztea, edo, behar denean, obren lizentzien eskaera, egoki dena, kontuan harturik "Jarduera sailkatuak, lanak eta mota guztietako jarduerak abian jarri aurretik jakinarazpena eta erantzukizuneko aitortpena egiteko prozedurak arautzen dituen udal ordenantza".
7. Geroko tramitazioa arinagoa izateko, baimena ematen dut adierazitako faxa, telefonoa edo posta elektronikoa erabiltzeko, abisu/jakinarazpen gisa (adierazi didate ezen, jakinarazpen elektronikorako, beharrezkoa dela ziurtagiri elektronikoa izatea)
8. Irakurri eta onartu ditut erantzukizuneko aitortpen honen ondorioak eta baldintzak, agiri honen 8. puntuan ageri direnak.

Burlatan, 20....(e)koaren(e)an.	(Eskatzailearen edo ordezkararen sinadura)	
---	--	--

Baimena ematen diot Burlatako Udalarari beste administrazio publiko batzuetako informazioa eta/edo dokumentazioa eskatzeko, erantzukizuneko aitortpen honen xede eta izaerarako behar dena.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1. Ondotik ematen den dokumentazioa gutxienekoa izanen da. Burlatako Udalak beste agiri batzuk eska ditzake, baldin eta beharrezkoa bada erantzukizuneko aitortpena behar duten jarduera sailkatuak zuzen eta osoki zehazteko, edo araudira egokituko direla bermatzeko.

a) Kasu guztietan:

- Lokalaren helbidea.
- "Aisialdiko biltokiko" ordezkariaren datuak (izen-deiturak, IFZ, helbidea, NANaren fotokopia, posta elektronikoaren helbidea, telefono finkoa eta sakelakoa, eta Burlatako Udalak jakinarazpenak egin ahal izateko beste edozein datu). "Aisialdirako biltokiko" kideek sinatutako agiri baten bidez frogatuko da ordezkariak. (3. edo 4. eranskina).
- "Aisialdirako biltokiko" gutxienez lau kideren eta gehienez hamar kideren izen-deiturak, IFZ, helbidea, NANaren fotokopia eta telefonoa. (5. eranskina)
- Adingabeen kasuan, gainera, izen-deiturak, IFZ, helbidea, telefonoa eta sinadura, aita edo ama edo tutore bakoitzak biltokiko adingabeei onartpena ematen diena (nahikoa izanen da adingabe bakoitzaren guraso edo tutoretako baten sinadura: adingabe bakoitzaren ama edo aita edo tutorea).
- Lokalaren jabearen izen-deiturak, NANA, helbidea eta telefonoa. (5. eranskina)
- Eskatzaileek lokalaren titulartasuna edo hura erabiltzeko legezkotasuna frogatu beharko dute. Horretarako, errentamenduaren kontratuaren edo erabilera lagapenaren kopia edo jabetza eskritura aurkeztuko dute.
- Lokala babesteko suteen aurkako eta erantzukizun zibileko aseguru-polizaren egiaztapena; gutxienez ere 250.000 euroko estaldura izan beharko du.
- Lokalaren behe tentsioko buletin elektrikoa.
- Lokaleko gauzen inbentarioa, 9. eranskina betez, edozein arrisku eragin dezaketen materialak, instalazioak, etxeko tresna elektrikoak etab. zehaztuko dituen.
- Fatxada osoaren/osoan eta sarbideen argazkiak (pertsianak, burdin sareak etab. irekita).

b) Aisialdirako biltoki iraunkorrak:

Ordenantza honen 1. eranskinean eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen direla frogatzea. Horretarako, lokalaren jabeak honako agiri hauek eman beharko dizkie maizterrei:

- Lokalaren plano eskalan, teknikari eskudun batek sinatua, non agertuko baitira azalera, banaketa, garaiera libreak eta suteei aurrea hartzeko neurriak, baita lokalaren beste instalazio batzuk ere (aireztapena, iturgintza, elektrizitatea etab.).
- Teknikari eskudun batek sinatutako ziurtagiria (6. edo 7. eranskina, obrak egin diren ala ez kontuan harturik); ziurtagiri horretan, garatu beharreko jarduerak eta lokaleko instalazio eta ekipamenduak azalduko dira, eta biltoki iraunkor gisa erabiltzeko egokia dela ziurtatuko da, suteen aurkako neurri zuzentzaileak, zaratei buruzko araudi indarduna eta ordenantza hau betetzen direla ziurtatuz.

c) Aisialdirako aldi baterako biltokiak:

- Lokaleko jabearen zinpeko aitortpena, jarduerarako erabiltzen den higiezinak ordenantza honen 2. eranskinean eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen dituela adierazteko.
- Burlatako festetan aldi baterako biltokia erabiltzeko lizentzia lortu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute uztailearen 20a baino lehen. Data horren ondotik aurkezten diren eskaerak ez dira onartuko.